

...eta kitto!

699 zkia. 2009-XI-20

ASTEKARIA

TOKIKOM



Santa Zeziliari serenata

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



ALFA

ALFA
Tribunak
Zentrala
Etxeak

900 000 000
900 000 000



Alfaren fari batek garaitzen du

Eraikitzen hasita. Azken etxebizitzak.

Soraluzen



22 ETXEBIZITZA ETA GARAJE

Soraluzen Promozioak. Informazioa: 689 420 761

Eraikitzailea: Egaralet www.egaralet.net



egaralet



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKTATZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihntza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

EZPATA-JOKO.- Gerraka ibili, mutilen jokoa. Gaztelarazko 'jugara a espadas, a guerras'. "Bazkal ostian eskolia hasi baiño lehen, edo errekreo denporan edo, bardiñ, eskolia amaittu ondoren jardutzen genduan ezpata-jokuan". Ezpataz eginiko borroka, duelua. "Gazte askorik, ezpata-jokuan hil eban lagun batek, andrakume bat zala ta ez zala".

EZPATADUNAK.- Militarrak. "Ezpatadunak jarri ziran agintzen, bildurturik enparaukuak".

EZPATETAN.- Ezpata-joko, mutilen jokoa. "Guk edozein lekutan egitten genduan ezpatetan, baiña leku aukerakuen Jardiñeta aldian izaten zan".

ESKUTITZAK

HILAREN 13-KO BANAKETA

Nolako arratsaldea izan genuen aurreko asteko barixakuan! Eibar erdia ilun, dendariak kalean eskuak gurutzaturik... Elektrizitate eta argiaren menpeko bihurtu gara; gure arbasoak horiek gabe bizirauten zuten, baina gu egoera berean ez gara ezer. Gaur egun dena elektrikoa daukagunez, horrelako itzalaldi batek biluzik lagatzen gaitu; hain biluzik geratzen gara, pegoretako atek ere ezin dizkigutela zabaldu.

Horrela ibili ziren gure banatzaileak ere. Iluntasun hartan pisudun karroetatik tiraka, pegoraren bat zabalik aurkituko zuten esperoan. Asko eta asko itxita zeudenez, ahal izan zuten moduan banatu beharra baino ez zitzairen geratu. Badakit askok aurreko alea lortzeko zailtasunak izan zenituztela; beraz, barka-

men eske nator gaurkoan. Hala ere, ez jarri zalantzan banatzaileak astero zuen eskuetan aldizkaria izateko egiten duten ahalegina. Ziur nago, gaur, aldizkaria zuen buzoietan zintzo-zintzo egongo dela; beraz, goza ezazue!

...ETA KITTO!-KO BANAKETA ARDURADUNA

NON SARTU DIRA GIZONAK?

Non daude gizonezkoak? Kaleetan Kantuz taldean gizonezkoen ahotsen premian aurkitzen gara; hori dela-eta, desberdintasun handia baitago ahots baxuen eta altuen artean, lehenbailehen zuzentzea komeni zaiguna. Horregatik, behar zaituztegunez, hemen gaituzue itxaroten. Animo!

KALEETAN KANTUZ

asteko **HEMEROTEKA** esaldiak

"Lapurretari kultura esaten zaio askotan, batez ere herri aurreratuak deitzen diren horietan. Herrialde aberatsen museoak arte espoliozioaren biltegi dira askorentzat. Esaterako, Parisko Concorde plazako obeliskoa, XIX. mendean Luxorko tenplutik eramana, mundu zabaleko herrialde anitzi eragiten dien injustiziaren ikur handienetakoa da"

(Xabier Martin, kazetaria)

"Hemengo feminismoa krisian dago: feministak martxoaren 8ko talde txoak bihurtu dira, diru-laguntzen menpe eta bertsio instituzional eta teknokratikoak narkotizatutakoak. Arrasaten erakutsi dut filma eta ixiltasun bitxia aurkitu dut. Filmeko emakumeak euren barrenek mintzo dira eta hala-ko hizkuntza pertsonalak harritu egiten du hemen"


(Maria Galindo, Boliviako ekintzaile feministak)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

 kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

SANANDRESAK GASTEIZEN

Urteroko moduan, Gasteizen bizi diren eibartarrek afaria egingo dute, San Andres jaiak gogoan. Hilaren 25ean, 20.00etan txikiteoa egingo dute, Dólar kafetegitik abiatuta (Florida, 26) eta afaria, berriz, hilaren 26an izango da, 21.00etan Olarizu jatetxean (Beato Tomás de Zumarraga kalean). Joan nahi duenak 945137145 telefonora deitu dezake edo, bestela, eibargasteiz@gmail.com helbidera mezua bidali.

ERREBAL PLATAFORMA

Errebal Plataformak hiru puntu jasotzen dituen idatzia zabaldu du. Lehenik, Hirigintza Batzorde Aholkularia prozesu burokratikoan menpe egotea sentitu du hiritarren partaidetzara baino. Bigarrenik, ez du ulertzen prentsatik jakin izana kontseilutik gelditu direla. Eta hirugarrenik, Errebaleko bizilaguntzat bizi-kalitate eta ongizatea emango dien Errebalerako alternatiba baten mesederako lan egiteko borondatea erakusten dute.

Maroko umeen liburutegira bisitan

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN MARTXAN DAGOEN MUNDUKO PAISIAK KANPAINAREN BARRUAN, gaur arratsaldean, 18.00etan 'Maroko, kontrastez beteriko herrialdea' izenburuko hitzaldia eskainiko du Hajar Samadi gazteak. Horrez gain, aurreko astean argindarra etetearen ondorioz bertan behera laga behar izan zituzten tailerrak ere gaur egingo dira, 18.30etatik aurrera. Arabiar kaligrafia, henna eta te zeremonia tailerrak Safa Eibarko emakume arabiarren elkartekoek eskainiko dituzte. Jarduera guztiak umeen liburutegian izango dira. Hilaren 27an, berriz, Marokoko



Marokori buruzko hitzaldi, tailer eta argazki erakusketa izango dira. / MAIALEN BELAUSTEGI

ipuin tradizionalen tailer elebiduna (arabiera-euskera) eskainiko du Hajar Samadik. Horrez gain, kanpainaren barruan Jose Luis Irigoien argazkilariaren lanekin erakuske-

ta dago martxan. Hilaren 29ra arte bisitatu daitekeen erakusketan Marrakech, Meknes, Atlaseko irudiak, basamortua eta Marokoko hegoaldeko argazkiak bildu dituzte.


EB-k Torrekuako pediatria zerbitzuaren inguruan

MIKEL ARANA EZKER BATA-BERDEAKEKO LEGEBILTZARKIDEAK RAFAEL BENGEOA OSASUN SAILBURUARI ZUZENDURIKO GALDERA erregistratu du, bere sailak Torrekuako pediatria zerbitzuari eutsiko dion ala ez azaldu dezan. Izan ere, Ara-

nak gogoratu du Torrekuan orain arte egon den pediatria jubilatu egingo dela eta udako oporretan inork ez zuela bere lekua hartu, "Toribio Etxebarriako lan-karga handituz eta, ondorioz, zita egun bi edo hiritan atzeratuz". EB-k jakin nahi du zenbat

gaixo jasotzen dituen Torrekuako pediatria zerbitzuak, berau kenduko den bertako pediatria jubilatuz gero eta, horrela bada, Pediatria Elkarrean jokabideak betetzeko neurriak hartuko diren Osasun Txartel Indibidualak ez gaituzteko.

Ia 1.500 lagunek eskatu dute ONA



URRIAREN 5-EAN ABIATU ZEN ONA TXARTELAREN INGURUKO KANPAINA ETA, ALKATEZTATIK BIDALITAKO DATUEN ARABERA, harrezgero 1.460 eibartarrek egin dute txartel berrirako eskaera. Hiritar-erabilerak barne hartzen dituen Osasun Elektronikoko berriaren inguruko kanpaina urtarrilaren 15era arte egongo da martxan. Txartela eskuratzeko betebeharrak honakoak dira: 16 urtetik

gora izatea eta oraingo Osasun-Identifikazio Txartela eta NAN aurkeztea. ONA txartela eskuratzeko ez da ezer ordaindu behar eta eskaerak honako toki haueetan egin daitezke: Kzgunean (Karmen kalean), Toribio Etxebarria edo Torrekuako osasun zentruetan, Untzaga jubilatu etxean eta Pegora Hiritarren Zerbitzura-ko bulegoan. Orain arteko eskaera gehienak azken puntu honetan jaso dituzte.

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA


• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 FAX: 943 202564

Egunkariako auzipetuekin elkartasuna

EGUNKARIA AUZIKO SUMARIO NAGUSIAREN INGURUKO EPAIKETA LASTER EGITEKOA DA (SEGURUENIK AZAROAN BERTAN) eta, hori dela eta, beste herri batzuetan bazala, Eibarren ere auzipetuei babesa erakutsi eta auzia bera salatzeke asmoarekin, ahalik eta jende gehien batu eta argazkia aterako da azaroaren 28an (zapatuan), 13.05etan Untzagan (gradetan). Herritar guztiei bertara agertzeko dei egiten zaie.

Epaiketa hasteko eguna zehazteke badago ere, Bilbon Egunkariaren aldeko manifestazio nazionala egitea aurreikusita dago. Epaiketa noiz hasiko den jakin bezain laster zehaztuko da manifestazioa egiteko eguna, baina ideia manifestazioa epaiketa hasi aurreko zapatuan izatea da. Edozein modutan ere, Eibartik manifestaziora joateko autobusak antolatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak, eskualdeko beste



Oraindik datarik ez badago ere, Bilbon egingo da Egunkariaren aldeko manifestazioa.

euskara elkarteekin elkarlanean. Eta 10 euroko bonoak ere ...eta kitto!-n erosteko moduan daude (Urkizu, 11 solairuartea).

Diruz laguntzeko aukera

Bestalde, epaiketaren kostuei aurre egiteko hainbat pertsona ezagun dirua biltzen hasi dira aste honetan bertan. Herritarren diru-ekarpenak jaso ahal izateko banku zein aurrezki kutxetan kontu korrante zenbakiak zabalduko dira, Egunkaria-epaiketa izen orokorrearekin. Dena dela, informazio gehiago nahi izanez

gero 688 654 930 telefono zenbakira deitu daiteke.

Eta azaroaren 28rako kantaldia antolatu dute Donostian, Kursaalean, oso abeslari ezagunen partehartzearekin. Besteak beste Anari, Anje Duhalde, Niko Etxart, Pantxoa eta Pello, Txomin Artola, Amaia Zubiria, Mikel Urdangarin, Josu Zabala, Oskorri, Rafa Rueda eta Gorka Urbizu han izango direla aurreratu dute. 19.00etan hasiko den kontzerturako sarrerak Elkar liburudendetan eta Hitza egunkarietako egoitzetan daude salgai.

Afagi eta Deparkel elkarteei eskultura

DEPARKEL DEBABARRENAKO PARKINSON ELKARTEAK ETA AFAGI ALZHEIMER GAIXOEN SENITARTEKOEN ELKARTEAK ARDANTZAN duten egoitzaren sarrera apaintzen duen eskulturaren aurkezpena egin zuten martitzene-



an. Esther Galarza artistaren zeramika-lanaren oinarrian Arrateko pago bat dago, artistak berak azaldu zuenari jarraituz: *"Arbolaren enborretik adar bi irtetzen dira eta adar bakoitzaren gainean elkartearen izenak idatzi ditut"*. Galarzak aipatutako elkarte bietako ordezkariak eskatuta sortu du eskultura eta aurkezpen ekitaldian Deparkel zein Afagiko kide ugari hartu zuen parte, Udaleko ordezkariekin batera. Bide batez, Parkinson zein Alzheimer gaitza inguruan dutenei euren elkarte-etara gerturatzeko deialdia egiteko aprobetxatu zuten ekitaldia. Izan ere, Ardantzako egoitzan aholkularitza zein terapia zerbitzuak eskaintzen dituzte gaixo zein haien senitartekoentzat.

1937koen bazkaria

PRIMERAKO EGUNA EMAN ZUTEN ZAPATUAN, 1937an jaiotako- en bazkarian parte hartzera animatu zirenek. Lehenik eta behin, Untzagan elkartu ziren eta talde-argazkia atera zuten eta, ondoren, Peña Txinberaren egoitzan piskolabisa eskaini zieten. Bazkaria, berriz, Arrate hotolean egin zuten eta bazkalostean dantzarako tarterik ere izan zen.



Ana Lete

X espedienteak Eibarren

Ortu beharra dugu Eibarren oso zorte txarra dugula. Edo agian erakarri egiten dugu. Edo "budua" egin digute. Ez dago adierazitako epeetan amaitu den obra garrantzitsurik, eta arazoak bata bestearen atzetik datoz. Kontua zera da: beti gelditzen da gairen bat bertan behera, bai gure herritik kanpoko arrazoiengatik, bai zailtasunei aurre egiteko gai ez garelako, eta tonto aurpegia jartzen zaigu. Orain krisi ekonomikoa da. Beste batzuetan enpresak porrot egin duela da arrazoiak, eta goiko administrazioek proiektu bat edo beste ez dutela diruz laguntzen ere aitzakia izaten da. Nahikoa da azken hiru hamarkadei errepasoa egitea, Eibarren proiektu ezberdinekin bizi izandako foiletioen zerrenda egiteko. Hain gazteak ez garenok gogoan ditugu Ipuruako kirolediaren lanak. Urteak egon ziren geldirik laurogehogarren hamarkadan. X espedientea izan zen hura, hau da, zentzuzko azalpenik gabekoa. Txalxtxa Zelaiko lanak Escorialekoak baino luzeagoak izan ziren. Coliseoa ere ustel atera zen lehenengo ahaleginean, Kultura Ministerioak kontratatutako enpresa Pepe Gotera eta Otiliorenarekin. Eibarko udaletxearen birmoldaketa lanak. Zer esan dezakegu foiletoi horri buruz? Amenabar enpresa eta Eibarko Udala Untzaga plazan jendaurreko duelian borrokan ikustea besterik ez zitzaigun falta. Baina emaitza berbera da: askoz ere denbora gehiago luzatu zen eta eibartarrek, udaleko diru-kutxaren bitartez, diru gehiago ordaindu behar izan zuten beren poltsikotik lanak aurrera egin eta amaitu zitezten. Hala ere ez dugu ikasten. Azkenekoa Errebalekoa dugu. Ez dut ezer esango Eibarko X espediente berri horri buruz. Zein izango da hurrengoa? Norbaitek porra egin nahi al du?

200.000 euro Gabonetako kanpainarako

asteko
%10eko
datua

jaitsiera aurreikusi dute 2010. urteko Udal aurrekontuetarako, aurtengo aurrekontuarekin alderatuz gero. Urte hasieran 39 milioi euroko aurrekontua onartu bazen ere, krisiaren eraginez 2'2 milioi euroko jaitsiera izan zen uda aurretik eta errealitate horretatik abiatu dira aurrekontu berria eratzen hasteko orduan.

EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIAK (EMGI) GABONETARAKO KANPAINAREN AURKEZPENA EGIN ZUEN aurreko barixakuan: barrakak Txaltxa Zelaian, umeendako jarduerak Urkizun eta Coliseoko ikuskizunetarako bonoak, horiek dira Gabonak girotzeko asmoarekin antolatutako jardueretako batzuk. Kaleak apaintzeko argiak San Andres bezperan piztuko dituzte.

Gabonetako giroa herri osora zabaltzeko asmoarekin, jarduerak herriko puntu ezberdinetan garatuko dituzte. Mertxe Garate EMGI-ko arduraduna eta Udaleko Merkataritza, Industria eta Ekonomia zinegotziak azaldu-takoaren arabera, "prestatu dugun programazioarekin ilusio handia daukagu eta Eibarko zein beste herrietatik etorritako jendeak antolatutako jardueretan ondo pasatzeko aukera izatea espero dugu". Kanpainak



200.000 euroko aurrekontua dauka eta EMGI-k ez ezik, Eibarko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak ere diruz lagundu dute.


Barrakak Txaltxa Zelaian

Aurtengo berritasunen artean, Txaltxa Zelaian ipiniko dituzten barrakak daude: abenduaren 19tik aurrera Erregeak bitartera egongo dira martxan eta adin tarte zabalarentzat egokiak izango dira. Abenduaren 19, 21, 22, 23, 26, 28, 29 eta 30ean doan izango dira eta gainontzeko egunetan, berriz,

1'5 euro balioko dute. Iazko martxari jarraituta, Coliseoan Gabonetan eskainiko dituzten ikuskizunetarako bonoak banatuko dituzte elkarteko dendetan erosketak egiten dituztenen artean. 5.000 bono banatzeko asmoa dute eta bonoa Coliseoko leihatilan aurkeztuta, euro bakarra ordaindu beharko da aukeraturako ikuskizunera sartu ahal izateko. Bestalde, Guai parkeak, ohiko zozketa bereziek eta pintxoetarako baleek ere tokia izango dute Gabonetako kanpaina berezian.

Oin dala hamar urte

1999-XI-19 / 294. ZKIA.




- Su Ta Gar musika taldiak kontzertua eskindu eban berriz Eibarren, kiroldegian, Kafha herriko taldiarekin batera. "Homo Sapiens?" disko berriz aurkeztu eban hartan, 500. kontzertuetara heldu ziran.
- Euskerazko lehelengo billatzaillia sortu eban Eibarko internautak. 30 kide zituaren gure herrixaren gaineko informazio zabala euskeraz eskintzen hasi zan www.eibar.org/aurki helbidian eguan taldiak.
- Sautsi urbanizatzia erabagi eban udal plenuak, EHren kontrako botuekin. Urte eta erdixan amaitzia espero eban egitasman, 101 etxebizitza, 204 garaje, kirolguniak eta zerbitzu komertzialak aurreikusten eban.
- Bizkar-hezurarekin lotutako gaitzen prebentzio eta tratamenduan espezialista dan Michel Marmier doktoriak hitzaldixa emon eban gure herrixan bizkar-hezurra zaintzeko egin bihar doguna azaltzen.

Oin dala 365 egun

- "Kalamuako Parlamentua" Eibarko historixia eta bizimodua ezagutzeko sortutako mahai-jokua aurkeztu eban Eibar.org alkartekuk. Oka jokua estiloko tablerua eta 1.260 galdera daka jokuk.
- Kirolaeuskaraz.net Gipuzkuako Foru Aldundiko webguniak Eibar Foball Taldeak aurrera eramaten ziharduan euskara planaren inguruko informazio zabala kaleratu eban Kirola eta Euskara atalian.
- Diana ehiza eta arrantza alkarteko Iñigo Gisasola kazarixak Euskal Herriko txapelketia irabazi eban El Castiloko ehizalekuan. Hamai-ka eperrekin, lauko aldia kendu zetsan bere atzetik geratu zanari.
- SuperHuman programako Pumphrey anaixak, supergizakiak be deittutakuk, Arraten izan ziran Kortina eta Bihurriekin, hainbat herri-kiroletoako probak National Geographic-entzat grabatzen.

2008-XI-21 / 657. ZKIA.





Hamaikabat alderdiaren aurkezpena

HAMAİKABAT (H1) ALDERDI POLITIKOA AURKEZTU ZUTEN AURREKO ASTEAN, PORTALEAN EGINDAKO EKITALDIAN. Aurkezpenean Martin Beramendi H1eko bozeramailea eta Mertxe Garate zinegotzia izan ziren, eta lehenak krisi ezberdinen testuinguruan kokatu zuen alderdiaren sorrera: *“Krisi ekonomikoari, balore krisi sakonari, abertzale-*

tasunaren krisiari eta Eusko Alkartasunaren barne krisiari aurre egitera dator H1”.

Beramendik H1en baloreak lau ardatzen inguruan kokatu zituen: gizarte politika, partehartzea, alderdi irekia eta aber-tzaletasuna. Zentzu horretan, Euskal Herriko kapital soziala osatzen duten elkarteei garrantzia berezia emango diela aipatu zuen.



Carlos Gonzalez eta Jesus Alconero dira KIUB-eko arduradunak. / LEIRE ITURBE

KIUB-ek energia sustatzaileen ekintza ezohikoak salatu ditu


EIBARKO KONTSUMO BULEGOA (KIUB) ENERGIA SUSTATZAILE ETA KOMERTZIALIZATZAILEENGANA zuzendu da, hauek bezeroekin duten erlazioetan zuzen jarduteko esanez euren sare komertzialaren bitartez zerbitzuak eskaintzeko orduan. Izan ere, *“uztailaren 1etik aurrera energia komertzializatzaileen bitartez soilik komertzializatzen da, eta horrela merkaturua liberalizatu denez, konpainia hauen komertzialak kontsumitzaileak erakarri nahian ari dira salmenta teknika ez zilegiak erabiliz”*, dio Karlos Gonzalez Udaleko kontsumo ordezkarriak.

KIUB gai honen gainean biztanleei informazioa emateko eskaintzen da. Horretarako, bere bulegoak 09.00etatik 14.00etara daude zabalik astelehenetik barixakura udaletxean.

auzoric auzo

Akzesio mekaniko berriak

Azken urteotako martxari jarraituta, herriko auzo eta kaleetarako bidea errazteko asmoarekin, Udalak hainbat auzotarako akzesibilitatea hobetzeko plangintzari jarraituko diola azaldu du. Horren harira, urtea amaitu aurretik hiru proiektu berriren inguruko lehiaketa deituko dute. Proiektuetako bat Antonio Iturrioz kalerako aldapa mekanikoa da: auzoaren behekaldeetiki hasi eta Arrateko Andra Mari ikastetxeraino joango litzateke aldapa mekanikoa, San Kristobalen martxan dagoenaren adibideari jarraituta. Udalak azaldutakoaren arabera, *“azken urteotan Urkin eskailera mekaniko bi ipini ditugu (Armagin-Urki eta Urki-J.A. Iturrioz) eta horiekin eta Untzaga eta Txaltxa Zelai artean daudenekin 70 metroko desnibelari aurre egitea lortu dugu”*. Aldaparako aurrekontua 350.000 eurokoa da. Ipuru alderako, berriz, igogailu publikoa dago aurreikusita, Juan Antonio Mogel auzoko 5. eta 6. zenbakien artean (195.000 euro). Eta lehiaketara irteno den hirugarren proiektua, berriz, Juan Gisasola eta Zezenbide lotzeko eskaile-rena da. Zati bitan ipiniko diren eskailerentzat 500.000 euroko aurrekontua dago.




eibar kalea

Arragueta

Urkizutik gora, Ibarkurutzerraino doan kaleak historia luzea eta nortasun berezia du. Anbrosio Atxa 'Itxasok' kanta eskaini zion: Arragueta Kalian. Abesti batendako aitzakiaz gain, seme-ilustrerik ere eman du kale honek: 1893ko San Andres egunean Arragueta kaleko 6an jaiotzen zen Pedro Basauri Paguaga, Eibar-ko Pedrucho toreatzailea.

Pegora kopurua: 21. Erroldatutakoak: 386.



Drogak edo alkohola hartzia: epaiketetan aringarri edo larrigarri?



MARIAN FERNÁNDEZ
37 urte
administratzaillia

Neretako drogak hartzia ezin da gutxigarri moduan erabili epaiketetan, ezta gutxiagorik be. Gero, kasuaren arabera eta abar haundigarri moduan erabili leike edo ez zigor gogorragua ezartzeko, baiña gutxigarri moduan gitxie-nez ez.



ANGEL CABEZUELO
53 urte
bihargiña

Drogak hartzia epaiketetan gutxigarri moduan erabiltziaren guztiz kontra nago, izan be, hori ez da iñungo aitzakixa delitu bat egiteko. Delitugilliarren aitzakixa modoko bat da, trikimaillu bat. Ez dakitt zeiniena dan kulpia, abokatuarena edo delitugilliarrena, baiña kontra nago.


MARI JOSE IGLESIAS
32 urte
langabia

Begittantzen jata drogak alkohola edo dana dalakua hartzia, ez da iñungo aitzakixa. Halanda be, ez dot ondo ikusten haundigarri moduan erabiltzia. Delitu bat edanda edo edan barik egin berdin da, gauzia eginda dago eta kitto, ez dago besterik.



RUBEN ETXANIZ
43 urte
kale garbitzaillia

Kasu batzuetan izan leike gutxigarri moduan erabiltzia, baiña ez kasu danetan. Hori kasuz kasu begiratu biharko zala begittantzen jata. Adibidez, drogen erabillera horrek delituan eragiña eukitzen badau edo ez ikusi biharko zan. Gatxa da, baiña ez zan automatikoki erabili biharko.



EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

02441
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

salgai duzu:
Mujika harategia
Urkiu prentsa
Bolintxo "Ibarkurutze"
Zabaleta okindegia
Narrua konplementuak
San Andres gozotegia
Askasibar kirolak
Kultu taberna
Valenciaga jantzidenda
Correos,
Udal Euskalategia
AEK Euskalategia
Isasi okindegia
Izadi loradenda
Untzaga prentsa
Dibutec fotokopiadenda

Loteria hartzaileen artean, abenduaren 16an GABON-OTARRA zozketatuko da

Datorren 26an, ostegunez



Beste estilo bat dator Gipuzkoara

Moda

Moda batzeko beste estilo bat. Arden joserak, bertoko eta nazioarteko firma handiak, markarik esklusibuenak eta gauegaitako osagarriak: oinetakak, bitxiak, lurrak, kosmetika...

Etxea

Beste estilo bat, etxea berritzea azkenean: oharak eta materialak arazo, alfonbrak, errezak... eta eteko fresneria elektriko gutxi.

Astialdia





Astaldiak garatzeko beste estilo bat. Kiraletarako gutxi, informatika, telefonoa, irudi eta sarrerako adier produktua... eta espazio bereziak liburutari, musika, zinemari...

Supermerkatua

Beste estilo bat eguneroko erosketak egiteko. Ugartasun gutxiarekin eta berria dezaketen kalitatekin osaturik. Produktu freskoak, sartutaria, ardoak, freskagailuak... El Corte Ingles markako produktuen garanta eta azarteko prezioekin.

Eibar Ego gain, 7

El Corte Inglés



ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10.00 - 22.00 EROSTEROKO KARTA, EPEKAROKO FINANTZAKETA, ETXERA BIDALTZEA, BIDAI AGENTZIA, KAFETEGIA, ETA EL CORTE INGLÉS-EN SARANTIA. POZIK GERATU EZIK, DIRUA, ATZERA ITZULIKO DA. GUREKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122

www.elcorteingles.es

INTERNETOKO BENDA HANDIA

Eguaztenian, hillaren 25ian, emakumienganako indarkerixaren kontrako eguna gogoratuko da nazioarte mailan. Egunen batian holako eguna gogoratzeko premiñarik ez egotia gehixenon nahixa izanda be, zoritxarrez oindiok be genero indarkerixaren amaieria aldarrikatzeko egun berezixaren premiñan gagoz. Gaur bertan presentau dittue Andretxean aurten egun horren inguruan antolatutakuak.

Uteroko moduan, hillaren 25erako konzentraziñua deittu dabe: Untzagan gogoratuko dabe emakumiendako indarkerixaren kontrako eguna, 13.00etan hasiko dan ekitaldixan. Horrez gain, eguaztenian hasi eta abenduaren 2ra arte genero indarkerixa, tratu txarrak eta horrelakuen gaiñeko materixala Juan San Martin Liburutegiko interesgu-



ne batian batuko dabe, interesa dakan edozeiñek errez erabiltzeko moduan.

Horrekin batera, azaruaren 28rako jardunaldi berezixa antolatu dabe Gipuzkoako Jabetze Eskolak (Arrasate, Hernani eta Eibarko Udaletako Berdintasun saillak). Goizez, 10.00-etatik 14.00etara garatuko dan jardunaldixan modu espezifikuan landuko dabe andren kontrako indarkerixaren gaixa eta informaziño zabalagua nahi dabenak Andretxeara jo leike (Zezenbide, 9) edo 943700828 telefono zenbakira deittu. Programia biribiltzeko, emakumiendako bereziki pentsautako autodefentsa taillarra egingo da abenduaren 9xan (8 orduko iraupe-na daka eta 09.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara emongo dabe, Ipurua kiroldegixan).



Autodefensa taillarra

Maitena Monroyk emongo daben taillarrian egunerokotasunian bizi leikiazen eraso sexisteri nola aurre egin ikastiaz gain, autoestimua eta solidariadadia indartzeko pautak emongo dittue eta eraso sexisten zergaitiak aztertze-ko aukerarik be izango da. Izena emon nahi dabenak hillaren 27ra arte eukiko dau horretarako aukeria, Pegorara joanda.

Arriskutsuak diran tokixak ezabatzeko mapia

Kalendarixuak egun bakarra eskintzen detsa genero indarkerixari, baiña arlo horretan biharrian diharduenak tratu txarrekin amaitzeko eguneroko borrokia bihar dala argi dake. Eva Juezek zuzentzen daben Udaleko Berdintasun zerbitzuak hainbat proiektu lantzen dihardu, emakumiak babesteko asmuari jarraituta. Bestiak beste,



herrixan andrendako arriskutsuak izan leikiazen mapia osatu nahi dabe eta horretarako lehelengo pausuak emon dittuela azaldu desku Juezek: "Asmua aurrelan moduko bat egittia da, gerora zelako neurrixak hartu bihar diran aztertu ahal izateko. Azken batian, urbanistikoki egon leikiazen gabezixak eta kanbixau biharrekuak atzeman nahi dittugu, baiña genero ikus-



- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Toribio Etxebarria, 4

EVA JUEZ, Berdintasun Zerbitzuko arduraduna

“Biktimen artian denetarik topatzen dogu”

- Zelako situaziñua dakagu herrixan, tratu txarren arluan?

Urtia amaitzeko oindiok falta dala ahaztu barik, oiñ arte 30 lagunek jo dabe guregana, tratu txar fisikuak edo psikologikuak jaso dituelako laguntasun psikologiko billa. Horretatik gehixenak, 28, andrazkuak dira. Etortzen diran gizon-zekuen kasuan, gaiñera, kontuan euki bihar dogu askotan derrigortuta etortzen dirala, egin dabenarekin benetan damututa egon barik. Beste batzuk, barriz, laguntasuna bihar dabela onartzen dabelako joteñ dabe guregana. Aurreko urtiotako datueri begiratzen badetsagu, pozik gagoz, 2008xan 39 kasu euki genduazelako. Dana dala, iaz oso igoera haundixa egon zan, 2007xan 21 kasu egon ziran-eta.

- Sarritan biktima tipo baten gaiñian egitten deskue berba, biktimak ezaugarri jakin batzuk eukiko bazittuan moduan. Irudi hori erreala da?

Askotan esaten dabe tratu txarrak jasaten dituan andrak ikasketa barikuak dirala, edadian piskat aurrera doiazenak, gizonarekiko depen-



dentzia ekonomiko edo psikologiko haundixagua dakela... baiña gure esperientziari begirata, biktimen artian denetarik topatzen dogu: eibartarrak zeñ atzerritarrak, edade diferentietakuak, ikasitakuak zeñ ikasketa barikuak. Ezin leike biktima tipo bat ziheztu, modu askotakuak daguzzelako.

- Ahalegiñ eta kanpaiña asko egitten dihardue azken urtiotan tratu txarrekin amaitzeko asmuarekin, baiña zeuek zelan ikusten dozue asuntua?

Tristia da, baiña urtero holako fetxetan esaten doten moduan, oindiok bihar haundixa egin bihar da tratu txarrak desagertu aurretik. Pentsatzen dogu jende gaziia beste balore batzutan hezitzen diharduela, baiña gero gaziien artian oindiok be jarrera matxistak daguzela ikusten dogu.



Horregaittik, gauzak ahalik eta gehixen errezteko asmuarekin eta tramite guztiak arindu ahal izateko danak ondo koordinata egotia eta, horrekin batera, emon biharreko pausuak ondo ziheztea be oso inportantia da. 2008xan egoeraren gaiñeko diagnostikua egin genduan, hau da, holako kasuetan jarraitu ziran pausuak aztertu genduaz, iritxikak eta baloraziñuak jasotzen jardun genduan... hori danori gauzak hobetzeko asmuarekin. Horretarako, bigarren pauso bat emon dogu, protokolo bat idatzitta. Protokolua Jauraritza bialdu dogu, Berdingunera, han aztertu deixen eta bueltan bidaltzen deskuenian ikusiko dogu zeozer kanbixau bihar dogun ala ez, horren zain gagoz”.

pegi batetik abiatuta. Akzesibildadia, inguruan etxiak dagu-zen ala ez, jendia pasatzen dan ala ez... holakueri begirata arrisku tokixak detektatzia da helburua eta horretan enpresa aditu batek jardungo dau”.

Protokolo bateratuaren garrantzixa

Tratu txarren gaixari helduta, barriz, holakuak gertatzen diranerako protokolo bat ezartzeko asmotan dihardue: “Tratu txarrak jasan dittuan andra batek

laguntza eskatzeko pausua emoten dabenian urduri eta galduta egoten da. Gaiñera, kontuan euki bihar da ate bat baiño gehixago jotzeko aukeria daguala (Ertzaintza, Udaltzaingua, ambuladorixua, Gizartekintza...).

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



UTILÉS Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANIZADO, S.L.

SPK - Zeramika, silizioa
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
ROY - Diamante eta boraxezko harriak

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBARRI

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA
☎ 943 12 02 00 Faxe: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Anali Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
BERRIA: Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

TEEN-
AJEA



Zapatu gauerdian musikak hartuko ditu herriko kaleak, baina ez tabernetako musikak, Cielito Musika Bandarenak baizik. Santa Zezilia ospatuko dute herriko musikariek, baita gaztetxoek ere. 15 urteko Carlos Arregik gogo handiarekin biziko du eguna, bera bezalako musikarien eguna.

CARLOS ARREGI, musikaria:
“Niretzat egun berezia da Santa Zezilia”

- Tronpeta-jole gaztea zara. Noiz hasi zinen musika-tresna hori jotzen?

Lehen Hezkuntzako 2. mailan nengoenean hasi nintzen, 12 urterekin.

- Eta Cielito Musika Bandan noiz sartu zinen?

Orain dela urte bi tronpeta-joleak behar zituzten eta musika-eskolatik hiru bidali zituzten, ni tartean. Hainbat entsegu egin genituen eta ordutik bandako kide gara. Musika-eskolan aritzetik Cielitorekin jotzera aldea dago mailari dagokionean. Bandaren maila altua da, baina denborarekin martxa hartu diot.

- Zenbat entsegu egiten dituzue astean?

Cielitorekin astean bi egiten ditut. Bestetik, tronpeta klaseak ere ematen ditut eta, ahal izanez gero, etxean ere entsaiaitzen aritzen naiz.

- Eta kontzertuetan zer moldatzen zara?

Oso ondo. Gutxi gorabehera hiru astetik behin egiten ditugu kontzertuak, baina badira saio

berezia ere, adibidez, asteburu honetako Santa Zezilia.

- Egun berezia da zuentzat Santa Zezilia?

Niretzat behintzat, bai. Santa Zeziliako kontzertua gogo gehiagorekin prestatzen dugu. Igande eguardian kontzertu polita eskainiko dugu, berezia, bandako hainbat pertsona omenduko baititugu: Jorge Molina zuzendari ohia, bandan 25 urte daramatzen Emilio Bastida eta 12 urterekin debuta egingo duen Galder Oneka tronpajole ermuarra.

- Bereziki gogoratzen duzun kontzerturen bat?

Berezienak nire lehen kontzertua eta iazko Santa Zezilia-koa izan direla esango nuke.

- Zein pieza jotzea duzu gustuko?

Pelikulen abestiak eta pieza modernoak batik bat. Hala ere, badago klasikoaren artean gustuko ditudanak ere, Verdiren batzuk kasu. Denetarik gustatzen zait eta, gainera, aldatzea ona dela deritzot, aspertu egingo ginateteke bestela.



Armeria Eskolako ikasle onenak sarituta

2. MAILAKO SARIAK

Batxilergoa

Nekane Soto

Mekanizatuaren

Produkzioa

Iñigo Izagirre

Informatika eta

Telekomunikazioak

Josu Arakistain

Instalakuntza

Elektroteknikak

Fco. Javier Carrascosa

eta Asier Osoro

Erregulatze eta

Kontrol Automatikoak

Danel Igartua eta

Ivan Benito (azken

hau sari berezia)



Ikasleen ahalegina eta konpromisoa baloratzen dute sariok. / EKHI BELAR

Ikasleek euren jakinduria propioa hornitzeko ikasten dute, ikasitako horrek etorkizunean ondorioak izan ditzakeelakoan, adibidez, lan on eta gustuko bat lortu, ezagutza hori gehiago handitu, edo eguneroko bizimoduan sortzen diren arazoei irtenbidea bilatzea. Zentzu horretan, txikitatik eskolan ikasitakoa saria da ikasleentzat, eta nahiz eta edonoren eskubidea izan, batzuren-tzat zerbait gogaikarria ere ba-

da (ikasleak anitzak dira eta euren jarrerak ere).

Ikasitakoaz jabetzea saria bada ere, Armeria Eskolako ikasle onenek beste sari bat jasotzen dute urtero. Euren esfortzu eta konpromisoa baloratzen da, notetan islatzen dena.

Zazpi saritu

Martitzenean, horrela, Armeria Eskolako Ikasleen Gurasoen Elkarteak urtero egiten duen batzarrean Ikasketa Sa-

riak banatu ziren Armerian bertan. Guztira zazpi izan dira aurten ikasle sarituak, espezialitate ezberdinen artean banatzen direnak.

Batxilergoko 2. mailari dago-kionean Nekane Soto Hernandezek eraman zuen saria, Mekanizatuaren Produkzioaren 2. mailako saria Iñigo Izagirre Narbaizak, Informatika ete Telekomunikazioetako 2. mailakoa Josu Arakistain Azpirik, Erregulatze eta Kontrol Auto-

matikoen Sistemen 2. mailakoa Ivan Benito Arias eta Danel Igartua Mujikak, eta Instalakuntza Elektrotekniken Ekipoen 2. mailakoa Francisco Javier Carrascosa Martin eta Asier Osoro Gorrotxategik.


Euren espezialitatean ikasle onenak izan ziren aurrez aipatutakoak, baina Gurasoen Elkartearen iritziz bat egon zen guztien gaitetik eta Ivan Benito Arias izan zen hori. Horrela, sari berezia jaso zuen Ivanek.

La Movida eibarresu
Kirola atseginez
egunero Borja Rodriguezekin,
arratsaldeko 3etatik 4etara

90.7 Fm



ZINTZILIKARIOA:
10 euro



ZINTZILIKARIOA:
18 euro



ESKUMUTURREKOA:
7,60 euro



ZINTZILIKARIOA:
8,20 euro



BELARRITAKOAK:
30 euro

ZINTZILIKARIOA:
7,50 euro



ESKUMUTURREKOA:
34 euro

...eta Euskara E Gabon KATAI



AHOZAPIA:
3,30 euro

AMANTALA:
20,70 euro




ARDILATXA KATILUAK:
6,90 euro

MAHAI-OIHALAK:
180x200: 48,10 euro
180x250: 60,50 euro
180x300: 70,20 euro



UMEAK:
2, 4, 6 eta 8
18 euro

NAGUSIAK:
M, L, XL
23 euro



JAIOBERRINDAKO
TOALLA:
17,60 euro



TOALLAK:
30x50: 7,30 euro
50x100: 14,50 euro
70x140: 24,20 euro
100x150: 34,80 euro





NAGUSIENDAKO
BAINU-BATA:
S, M, L, XL
67,50 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara E
Datorren ASTELEHENETIK aurrera, 10.00etatik 13.00etara /

IKUSI, AUKERATU eta ENKAI

kitto! Elkartearen metako LOGOIA


DISKA, DVD, MAHA-JOKO ETA LIBURUAK



EGURREZKO
OPARIAK



ARBOLARAKO
OLENTZERO:
3,75 euro



UMEENDAKO
BAINU-BATA:
2, 4, 6, 8
44 euro




Iruñeako
KARRIKIRI
Euskara
Elkartea

Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
16.00etatik 20.00etara

ARGUA EGIN!





Julio Callejaren KOLABORAZIOA

Ilarak zinean: telebistari esker?

Eibarren azken zinea itxi zutenean, arduradunak, bere hautua justifikatzeko, jende gutxi joaten zela eta dirua galtzen zuela zioen; errentagarritasun eza, azken finean. Hilabete batzuk geroago, eztabaida publikoaren -hor nonbait- ondoren, Coliseoan zine komertziala ematea lortzen da eta, bat-batean, ilarak osatzen dira zinea ikusteko. Hori bai bitxia! Baina, arretaz begiratu gero, konturatuko gara ilara gehien izan dituzten filmeak komunikabideetan oihartzun handiena izan dituztenak direla eta jendea pilatzen dela telebistan publizitatu dituzten tituluak atzetik. Azkenean, telebistari eskerrak eman beharren izango gara, geratzen diren zine-areto urriak betetzeagatik! Dena dela, ezin naiz ondorengoa esan barik geratu: promozio handiena dituzten pelikulek ez dute zertan filme onak izan; hori bai, publizitatean diru mordoa gastatu dute eta ezin ditugu gure bistatik kendu... Azkenean derrigorrezkoa bihurtuz pelikula horri buruz galdetzea: Ikusi duzu? Joango gara ikustera? Atzo ikusi nuen...

Aste honetan Asier Errasti laburmetraien jaialdia izan da Portalean, astelehenetik barixakura, pelikula txikien ordu eta erdiko saioetan. Zinearen etorkizuna hor ei dago. Ilara handiak ikusteko gogoia nuen. Zuk ikusi dituzu?



ZINEA

Gidoilariak trebatzeko proiektua martxan

'GIDOI FAKTORIA EIKEN EITB' IZENAREN PEAN EUSKAL HERRIKO IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREKO KLUSTERRAK IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOAN lan egiteko gidoilari adituak trebatzeko proiektua sortu du EITB-ren laguntzarekin. Programaren helburua ikus-entzunezko enpresei goi-mailako produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko gai diren profesionalak heztea da. Horrela, gaur egun telebistaren munduan dagoen hutsunea beteko litzateke. Proiektua Itziar Mena EIKEN-en zuzendariak eta Madalen Bermeosolo Gidoi Faktoriaren eta EITB-ren Prestakuntza arduradunak aurkeztu zuten joan den egunean.



Emakumeek egindako zinea Bilbon


BILBOK EMAKUMEEI ZUZENDURIKO XIV. ZINEMA ERAKUSTALDIA JASO ZUEN AZAROAREN 5-ETIK 14-RA. Bertan mundua emakumeen begietatik ikusi eta ezagutzeko aukera izan zen, mundu osoko errealizadoreen bitartez. Aurkezpenean Erika Lust zine-erotikoko zuzendariak egin zuen berba zinema pronon eta feministaren gainean, eta erakustaldian zehar 10 luzemetrai eta 9 laburmetrai egon ziren ikusgai. Mundu osoko sortzaileen lanak ikusi ahal izan dira Bilbon, besteak beste, Aizpea Goenagaren 'Sukalde kontuak', Antonia San Juanen 'A las once' eta Chus Gutierrezen 'Retorno a Hansala'.



ANTZERKIA

275.000 euroko laguntza antzerkia sustatzeko

EUSKO JAURLARITZAK 275.000 EURO EMANGO DITU ANTZERKI IKUSKIZUNAK KONTRATATZEKO 'ANTZERKIA BULTZATUZ' PROGRAMAREN BARRUAN. Helburua arte eszenikoen gaineko lana eta inguruko enpresak sostengatzea da. Programa 2010eko urtarrilera arte egongo da martxan eta gazteentzat, helduentzat, euskera edo gaztelerazko ikuskizunak hartzen ditu bere baitan. Hasiara batean 150.000 euroko aurrekontua erabili behar zen 75 ikuskizunetarako, baina programak izan duen harrera ona dela-eta 274.619 eurora igo dute aurrekontua 115 ikuskizunetarako.



'Ttakun ttan ttakun', txalaparta baino gehiago

DANTZA, ANTZERKIA ETA, NOLA EZ, TXALAPARTAREN SOINUA UZTARTZEN DITU JUAN MARI BELTRANEK 'Ttakun ttan ttakun' ikuskizunean. Musikaren soinuak, argi eta itzalen bidez irudikatua, dantzarekin, musikarekin eta landa giroko doinuekin ikuskizun intimo, magiko eta pixka bat fantastikoa lortuz. Ikuskizunaz gain, Beltranek proiektu handiago bat garatuko du. Izan ere, Durangoko Azokarako CD bat, DVD bat eta 250 orriko liburu bat argitaratuko ditu. Liburuan txalapartaren inguruan orain arte egindako lan garrantzitsuenetakoa egin du Beltranek, Iñaki Zarataren laguntzarekin.

Bertsolaritza Txapelketan ezustekorik izan bada, Miren Amuriza da. Entzuleen bihotzak bereganatu ditu berriztarrak, eta Audio eta Gasteizen garaipena lortu ostean, final nagusirako txartela lortu ahal dezake bihar Gernikan. Segurua dena da azaroaren 27an Portalean egongo dela San Andres Bertso Jaialdian.

MIREN AMURIZA, bertsolaria:

“Bertsolaritzaren gaztetzea onerako izatea espero dut”

- Laudioko final-laurdenetan irabazi zenuen, Gasteizeko finalerdikoaren 1. itzulian irabazi zenuen... eta Gernikako finalerdikoaren 2. itzulian, zer?

Txapelketara inongo esperantza barik eta ondo pasatzera joan nintzen, eta ikusi dut emaitza ona eman didala horrek. Jendeak aipatu dit nire izena ahoz-ahoz dabilela eta horrek presio gehiago emango didala, baina nik esaten diet orain inoiz baino presio gutxiago daukadala eta egin beharrekoa birritan egin dudala. Konfidantza daukat eta ondo pasatzera noa, gutxienez txapelketa zapore onarekin amaitzeko. Nire helburuak beteta geratu dira eta gehiago badator hobeto.

- Gasteizen, gutxienez, Laudioko garaipena kasualitate hutsa ez zela izan erakutsi zenuen.

Beno, ba bai. Orain arte ez nago entzun gabe: “Mirenek irabazi du, bai, baina Amurizaren alaba da...”, hori beti eduki dut hor eta ez naiz hortaz lotsatzen. Bai Laudion, bai Gasteizen egun ona izan nuen, baina aurretik lanean eta entrenatzen ibili naiz, eta hori igaritzen da. Ea hurrengoan errepikatzen den.

- Txapelketako gazteenarikoa zara eta gazteek, orokorrean, maila handia erakutsi duzue. Belaunaldi aldaketa ematen ari da bertsolaritzan ala goiz da hori esateko?

Aipatu digute, behintzat, bertsolarien adi-

naren batzbestekoa gaztetzen doala eta baita entzuleena ere. Espero dudana da gaztetze hau bertsolaritzaren onerako izatea.

- Nola begiratzen zaituztete ‘zaharrek’?

Uste dut batzuentzat sorpresa izan garela eta beste batzuentzat susto bat. Aurten Madalena Arzallus, Julio Soto eta ni neu, adibidez, galtzeko ezer barik joan gara txapelketara, eta lehendik zerbait egin dutenek oraingoan ere zerbait egin nahian joan dira. Hori igarri dela uste dut. Nola ikusten gaituzten? Imaginatzen dut alde batetik poztu egingo direla atzetik jendea dagoela ikusteagatik, eta bestetik ikaratu baten batek lekua kendu ahal dielako. Baina ez dut uste ezer txarrik pentsatzen dutenik.

- Eibarko Portaleko aretoa txikia da Laudio edo Gasteizen aritu zaren lekuekin alderatuz. Ez zaitu kikiltzen milaka pertsonen aurrean bertsotan aritzeak?

Ezta gutxiago ere. Askotan esan dut lotsa gehiago ematen didala pertsona baten aurrean bertsotan aritzeak 1.200 lagunengatik baino. Publiko handiaren aurrean zaudenean puntu bat hartu, horri begira gelditu eta zure ari ekiten diozu. Non gauden konturatuko bagina, lotsatuko ginatke, baina ariketa amaitu arte ez dugu erreakzionatzeko aukerarik izaten, beraz, trankil egoten naiz.

- BEC-en are jende gehiago bildu daiteke. Finalean ikusten duzu zure burua?



Finalean seguru egongo naizela, publikoan koadrilarekin behintzat bai sarrera hartu dugulako (barreak). Hortik aurrerakoa ez dakit, horrela bada ondo, eta bestela ere ondo.

- Zure aitak birritan jantzi zuen txapela. Zer diotsu berak?

Bera ni baino askoz ere urduriago dabil, saioetara etorri eta azkenean txartoago pasatzen du. Etxean jaso dudana aholkurik onena trankil joatea da, neurea egitea eta disfrutatzea. Izan ere, agian gu ez gara konturatzen, baina aukera handia da Euskal Herri osoaren aurrean agertzea, nire belaunaldiko asko atzean geratu direlako nahiz eta gu hainako maila izan. Orduan, ondo aprobetxatzeko esaten didate.

Hilaren 27an bertsoarekin zita Portalean

SAN ANDRES BERTSO JAIALDIKO EDIZIO BERRIA EGINGO DA DATORREN ASTEKO BARIXAKUAN PORTALEAN. Jaialdia gaueko 22.30etan hasiko da eta lehen mailako bertsolari gazteak bilduko ditu: **AMAIA AGIRRE, MIREN AMURIZA, MADDALEN ARZALLUS, IBAI ESOAIN, JOKIN URANGA ETA BEÑAT UGARTETXEA.** ...eta kitto!-k kaleratutako karteletan bost bertsolari agertzen badira ere, jaialdian seiko-teak jardungo du, bertan ez dagoen Ugartetxea ere Portalean izango baita. Sarrerak Sagar-Bitzan, Kultun eta Deporren erosi daitezke, 5 eurotan.

Ohikoa denez, ekitaldi berean sariak banatuko zaizkie **BERTSO PAPER LEHIAKETAKO IRABAZLEEI.** Honakoak izan dira hauek: 16 urtetik gorakoetan, **IÑIGO LEGORBURU** (Ore-reta) izan da 300 euro eta txapela irabazi dituen eta 2. saria **OIHANA ARAKISTAIN** eibartarra izan da (berarendako izango dira 250 euro eta plaka). DBH mailan, epaimahaiak horrela erabakita ez da saririk banatuko. Eta LH-n, lehenengo saria **MAIER FERNANDEZ**entzat -Iturburu- izan da (45 euro eta txapela); bigarrena, bestalde, **BADR EL BAKAL**ek -Amaña- irabazi du (40 euro eta plaka).

Erronka bikoitza Escuderia Eibarko klasikoetako auto gidarientzat

DENBORALDI AMAIERA GERO ETA GERTUAGO DAGOEN HONETAN, AZKEN ERREMATEA ipini nahiko diote Escudería Eibarko klasikoekin lehiatu diren gidariek. Horrela, German González eta Iban Beroizek Comillaseko rallya jokatuko dute euren Ford Escort XR3i-rekin; Kantabriako Eskuderien Kopako liderrak dira gaur egun, Valles Pasiegos Rallyan nagusitu eta gero, eta postu horri eusteko asmoarekin doaz. Gaur eta bihar, bestalde, Eibarko eskuderiako hiru ordezkari izango dira Rally Vasco-Navarroko Jose Ignacio Sunsundegi memorialean: Roland Holke eta Fernando Beorlegi (Porsche 911), Antonio Cancelo eta Jorge Beorlegi (Seat 124) eta Xabier Redondo eta Iñaki Morales (BMW 318). Jokoan zer daگوen? Piloto, kopiloto eta eskuderiaren txapelketa absolutuak.



Iban Beroiz eta German González.

Bihar Urvat-en partidua Orbean

AZPEITIKO IZARRAITZ TALDEA IZANGO DUTE AURKARI URBAT-URKOTRONIK WATERPOLO TALDEKOEK bihar, arratsaldeko 20.30etatik aurrera, jokatu beharreko partiduan. Aurreko zapatuan, bestalde, eibartarrek 11-4 galdu zuten Irunen, Euskal Herriko ligako 2. jardunaldian. Oiasso-Bidasoa XXI taldekoak Urbatekoak baino gehiago izan ziren neurketa osoan.

Eibartar bakarra Karakateko igoeran

SEKULA BAINO PARTE-HARTZAILE GEHIAGO IZAN ZITUEN ZAPATUAN JOKATUTAKO KARAKATEKO IGOERAK; hala ere,

eibartar bakarra izan zen proban. Iker Etxeberria izan zen bera eta 24. postuan sailkatu zen. Guztira 58 atleta bildu ziren bidea markatu barik jokaturako igoeran: azkarrena Oier Ibarbia zizurkildarra izan zen, 30 minutu eta 47 segundoko denborarekin, eta emakumeetan Nerea Amilibia aiarra izan zen nagusi, 35'48"ko denborarekin. Aritz Kortabarria arrasatearrak 2006an egindako markak(29'00") indarrean dirau.



Hamazazpi domina herriko judokentzat Arrasaten

URREZKO ZAZPI, ZILARRREZKO LAU ETA BRONZEREZKO SEI: HORI IZAN ZEN KALAMUA JUDO TALDEKOEK Arrasateko Gabonetako torneoan jasotako uzta. Arrasate Klubak urtero antolatzen duen torneoan, kadete, infantil, benjamin eta alebin mailako 180 bat judoek hartu zuten parte, Ondarroa, Markina, Mutriku, Deba, Legazpia, Zumarraga, Hondarribia, Arrasate eta Eibar

ordezkatzten. Kalamuako irabazleak honakoak izan ziren: Aimar Ormaetxea, Iker Cabo, Oier Alzaga, Asier Sebastian, Unax Simon, Beñat Gómez eta Nekane Muguruza -meritu handia du azken honek, infantila izanda kadete mailako mutilekin lehiatu zelako-. Asteburuan, Manu Agirre, Julio Gallego eta J.M. Paternain Madrilerera joango dira defentsa pertsonal ikastaro batean parte hartzera.

Garaipenik zer den ez dakitela bisitatuko dute liderra Hierros Anetxeko rugbilariek

EIBAR HIERROS ANETXE RUGBI TALDEKOEK ORAIN ARTE PORROTAK BAKARRIK JASO BADITUZTE, domekakoa ez da partidurik samurrena izango lhasak zuzentzen dituen mutilentzat. Ovie-don jokaturako azken jardunaldian, galtzaile izan ziren beste behin (36-7); oraingoan ere horrelako alderik ez bazen ikusi jokoan, egia da eibartarrak

nahiko lo zelairatu zirela eta zazpigarren minuturako entsegu bi jasota zizutela. Maila berrian esperientzia falta igartzen zaie Hierros Anetxekoei eta, taldeko aurrelariak ondo jardun arren, asturiarrek taldean bederatzikanpotar izatea ondo asko nabarmendu zen norgehiagokan. Domekan Hernanin jokatu beharreko partidua eguerdiko 12.00etan hasiko da.





Min hartuta ere, ez dela kokiltzen erakutsi zuen beste behin Titinek. / FELIX MORQUECHO

Titinen hirugarren partidua jarraian Astelenan

BESTELA GELDIRIK EGOTEN EZ BADA ERE, ASTELENAKO TXOKO GUZTIAK ezagutzen amaituko du Trizioko aurrelariak, domekan lau eta erdiko txapelketa nagusiko azken jardunaldiko partidua ere frontoi berean jokatu beharrekoa erabakigarria izan daiteke, Gonzálezek bezperan galtzen ez badu behintzat; gainera, aukera handiak daude biak -Titin eta Irujo-finalerako sailkatzeko. Euren artekoa jaialdiko partidu nagusia izango da eta, aurretik, binakako neurketa izango dugu: Berasaluze IX.a eta Laskurain Aritz Lasa eta Zubietaren aurka. Jaialdiarekin amaitzeko, bestalde, 2. mailako buruz-buruko interesgarria izango da jokoan, Mendizabal eta Argotereren artekoa jasoko duena.

Arratek porroten bidea hartu du

IRUÑEAN ERE EZIN IZAN ZEN ETA ARRATEK 31-24 GALDU ZUEN NAFARREKIN herenegun arratsaldean jokatuak partiduan. Nafarrek alde handiena amaieran lortu zuten, baina hala ere erraz nagusitu ziren partiduan zehar. Hurrengo norgehiagoka ere ez dute erraza izango Julian Ruizek entrenatzen dituen mutilek, Regalartzek jasoko baitute hurrengo barixakuan, hemendik zortzi egunera. Ikusten denez, egutegi arraroarekin jarraitzen du Asobal ligak eta zaila da jakitea noiz jokatzen duten asteburuetan eta noiz asteen zehar. Emaitzetan ere, irabazten hasteko ordua heldu da.



Usobiaga bigarren Munduko Kopan

AZKEN JARDUNALDIAN EZIN IZAN ZUEN ONDRA GAINDITU; baina borroka eman dio denboraldi osoan eta, inork ez dezala ahaztu, Munduko Txapelketa ere irabazitakoa da aurtan. Denboraldi bikaina egin du Eibarko eskalatazailak, 2006an eta 2007an eskuratutakoa berretsi ez duen arren. Esloveniako Kranjen jokatuak proban, 6. postuan amaitu zuen Usobiagak. Argazkian, podiumean, Adam Ondra eta Sachi Ammarekin.




Eibar FT marka berriaren bila

HORREN BILA JOANGO DA FERROLERA, BERTAKO RACING TALDEARI IRABAZITA, lidergoari sendo eusteaz gain, inoiz lortu ez duena eskuratuko luke-eta, hau da, zortzi garaipen jarraian eskuratzea. Partidua A Malata estadioan jokatu da domekan, 16.45etatik aurrera. 3. mailan diharduen Eibar KEko bigarren taldearen ibilbidea oso desberdina da eta puntuen beharra du: aukera berria Zallan izango du, Landaberri zelaian, 17.00etatik aurrera, honek ere domekan. Autobusa 14.15etan irtingo da Eibartik.

Deporreko eski batzordean pilak kargatzen

KLUB DEPORTIBOKO ESKI BATZORDEA DENBORALDI BERRIRAKO BONOAK EGITEN HASI DA, "LE SOMPORT" ESKI ESTAZIORAKO. Hori dela-eta, interesatuek bulegotik pasatzeko aukera duzue, jakinda epea abenduaren 3an amaituko dela (65 euro ordaindu behar da helduen kasuan eta 30 umeen). Horrez gain, federatu txartelak ere egiten hasi dira eta zehaztuta daude denboraldiko

txangoak noiz egingo dituzten: asteburu bi urtarilean (9/10 eta 30/31) eta bana otsailean (27/28) eta martxoan (6/7). Eskursio guztietan helduak eta gaztetxoak autobus berean joango dira, nahiz eta lo egiterakoan banandu. Lehenengo txangorako izen-ematea zabalik dago eta abenduaren 29an amaituko da. Bulego egunak eta orduak betikoak dira: martitzen eta egunetan, 19.30etatik 20.30etara.



Tren-geltokiaren fatxadan 1909 ipintzen du. Askok uste izan dute hori dela geltokiaren sorrera data; *"baita guk ere hasieran"*, dio Luis Maria Dominguezek. Baina geltokia 1887an egin zuten. Hala ere, aurten tren-geltokia izango du gai Exfibar-ek. Domekatik azaroaren 29ra egongo da zabalik Portalean.



LUIS Mª DOMINGUEZ, Exfibar-ekoa:

"Filatelia dirua dela uste dutenak oker daude"

- Eibarko tren-geltokiaren inguruan zentratuko da aurten Exfibar. Nolako zigiluak aurkitu ahal izango dira erakusketan?

Tren-geltokiaren inguruko zigilu eta abarrak, eta beste gai asko jorratuko dituztenak. Proposatzen dugun gaiaren inguruko zigiluak erakustea gustatzen zaigu, baina zaila da.

- Zenbat bilduma eta zigilu jasoko dira erakusketan?

Zenbat esatea ia ezinezkoa da. Bildumak 17 izango dira.

- Nondik ekarritakoak?

Espainia osora bidaltzen dugu etortzeko gonbidapena; horrela, Huelva eta Cádizetik ere etorriko dira. Aurten, gainera, Frantziatik ere etorriko da bildumagile bat.

- Egongo da bitxitasunik bildumen artean?

Ez ditut bilduma guztiak ikusi; ezagutzen ditudanen artean, badago eibartar baten bat aire-garraioari buruzkoa, eta beste bat Gipuzkoako postari buruzkoa, Eibarko hainbat marka batzen dituen. Bilduma horietako kartek, hala ere, ez dute jendearen arreta pizten. Jendeak koloreak ikusi nahi ditu, gauza ikusgarriak, eta normalean eskasena dira horiek. Zigilurik gabe, zigilu-marka, lumatxo markak... dituztenak dira balio handia dutenak.

- Nola baloratzen da, bada, bilduma baten balioa?

Zigiluak erraz lortzen diren gauzak dira, dirua izanez gero... Baina zigilurik ez zegoen sasoiko zigilu-marka eta hala-koak lortzea zaila da; eta, dirua izanda ere, askotan ezin dituzu eskuratu. Mundu guztiak pentsatzen du filatelia dirua dela, baina ez da horrela. Zigiluaren balioa ez da bere antzinasunean neurtzen; kontua da zigilu hori bakarria izatea edo bera bezalako gutxi egotea.

- Galtzen ari da filateliarekiko zaletasuna?

Lehen ez geneukan ez bideo-jokorik, ez kromo-bildumarik, ez ezer. Beraz, zigiluak biltzen genituen. Gogoratzten dut nola eskolan zigiluak elkarbanatzen genituen, baina horrek ez du belaunaldi berrietan jarraitu eta galdu egin da.

- Lehen eskolan elkarbanatzen zenituzten zigiluak, baina nola lortzen dituzu gaur egun?

Beste erakusketetara joanez, enkanteetan eta, gaur egun, interneten bitartez.

- Exfibar-ek 40 urte beteko ditu aurten. Zerbait berezia prestatu duzue?

Ez; laguntza bitartez egiten dugulako dena eta diru kopurua murriztu egin delako.



Gazte lokalen lehiaketaren finala

EIBARKO I. GAZTE LOKALEN TXAPELKETAKO FINALA BIHAR, ZAPATUA, JOKATUKO DA, 12.00etatik aurrera Eskolako frontoian. Lehiaketako joko guztietako finalak eguerdian jokatzen hasiko dira eta 13.00ean, berriz, bazkari-lehiaketari ekingo diote: parte-hartzaileek makarroiak eta tortilak egin beharko dituzte eta, ondoren, 14.00etatik aurrera prestatutakoekin bazkaldu egingo dute. Irabazleei bazkaldu ondoren banatuko dizkiete sariak eta 16.30etatik aurrera hainbat jokotan parte hartzeko aukera izango da.

Eta ordubete geroago, egunari amaiera emateko, Aizkora Beltza taldeak kontzertua emango du. Talde eibartarra Mikel Ojanguren 'Titak' (ahotsa), Mikel Arrietak (gitarra), Javier Luenegok (gitarra/baxua), Mikel Kinak (baxua/gitarra) eta Borja Etxebarria 'Tirik' (bateria) osatzen dute.

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketaren finala irekia da eta aurretik parte hartu ez duten gazteek ere biharko ekitaldira joateko aukera izango dute, helburua *"lokalean artean dinamika eta giro ona sustatzea"* delako.



"Mailla txikiagoko" txapelketa honek ere kuriositatea pizten du. / LEIRE TURBE

Eskolarteko bakailao txapelketa

DOMEKAN JOKATUKO DA SAN ANDRES JAIEN INGURUKO ESKOLARTEKO BAKAILAO LEHIAKETA. Eibarko Bakillauaren Kofradixiak antolatzen duen lehiaketa 11.00etan hasiko da, Untzagan: 12 eta 14 urte bitarteko lau bikotek eta 14 eta 16 urte bitarteko beste lau bikotek jardungo dute lehiaketan eta antolatzaileek bikote guztiei opariren bat emango diete. Bestalde, Bakillauaren Kofradixiak hilaren 29an ospatuko duen XVI. kapituloan Miren Mandiola biologoa, Enrique Zuazua matematikoa eta Pedro Palacín musikaria ohorezko kofrade izendatuko ditu.



Sanandresetako aurkezpena

EGUAZTENEAN AURKEZTU ZUTEN PRENTSAURREAN AURTENGO SAN ANDRES JAIETARAKO PRESTATUTAKO EGITARAUUA. Udaleko Jai Batzordeko Javier Zorrakinekin batera Miguel de los Toyos alkateak eta Peña Txinbera zein Txirindularien Elkarteak kideek jardun zuten. Izan ere, alkateak azpimarratu nahi izan zuen moduan, "jai egitaraua osatzeko orduan herriko elkarteen parte-hartzea ezinbestekoa izan

da". Besteak beste Arrate Kultur Elkarte, Bakillauaren Kofradixia, Eibarko Musikari Gazteen Elkarte, Txirindularien Elkarte, Kezka dantza taldea, ...eta kitto! Euskara Elkarte, Club Lambretta, Peña Txinbera eta Urvat izan zituzten gogoan. Hainbat ekitaldi aurretik egingo badira ere, programako ekitaldi gehienak hilaren 27tik aurrera garatuko dira.

Kantabriako abesbatza San Pion

KANTABRIAKO ETXEA ANTOLATUTA, GUARNIZOKO 'VOZ DEL PUEBLO' ABESBATZAK kontzertua emango du zapatuan, 20.00etatik aurrera San Pio X.a elizan. Jesús Carmonak zuzendutako abesbatza 32 gizonetara osatzen dute eta sari ugari jasotakoa da.



Hiru sari Palaciosen argazkientzat

JOSE ANTONIO PALACIOS KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEKO KIDEAK sariak irabazten jarraitzen du. Eibartarraren hiru argazkiak beste horrenbeste lehiaketatan saria eskuratu dute Kordoban, Canbrilsen eta Donostian.



Uxue Alberdi AEK euskaltegian

AURREKO BARIXAKUAN UXUE ALBERDI IDAZLE ETA BERTSOLARI ELGOIBARTARRAK 'AULKI-JOKOA' BERE LIBURUAZ JARDUN ZUEN AEK EUSKALTEGIAN, R300 ikastaroa egiten diharduten dozena bat irakasleren aurrean. Azaldu digutenez, "liburuaren sormen prozesuaz egin zuen berba, adibideak erabilita errealitatea eta fikzioa nola uztartu dituen erakutsiz. 25 urteko neska gaztea izan arren, Uxuek erraztasun handia du sentimenduak adierazteko eta hurbileko egiteko eta entzuleak oso gustura egon ziren". Ia ordu biko azalpena eta gero, agurtzeko,



bertso bat kantatu zioten, Bertsolari Txapelketan zorte on izan zezan opatuz.

laburrak

BIDEO EMANALDIA

Eguenean, 19.00etan film-dokumentala emango dute Tallarra gaztetxean: "The Weather Underground" lanak 70eko hamarkadan sortu zen ezkerreko taldearen jarduerara eta ibilbidea azaltzen ditu.

USARTZAREN KALEJIRA

Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du domekan, 11.00etatik aurrera. Untzaga eta inguruan ibiliko dira txistulariak, Santa Zeziliaren omenez zortzikoak eta dantzarako doinuak eskaintzen.

REIKI IKASTAROA

Txaltxa Zelaiko Reiki zentruak hastapen ikastaroa emango du azaroaren 28an eta 29an. Interesa dutenek 665743217 telefono zenbakira deitu dezakete, informazioa eskatzeko edo izena emateko.

URTEROKO MODUAN, CIELITO MUSIKA BANDAK MODU BEREZIAN BIZIKO DU ASTEBURUA, DOMEKA SANTA ZEZILIA EGUNA DA-ETA. Horregatik, musikarien patroiairen omenez hainbat emanaldi eta jardura berezi garatuko dituzte bandako kideek. Gaur bertan hasiko dituzte ospakizunak, honezkeroko klasikoak bihurtu den foball partidua-rekin: egurrezko instrumentuek metalezkoen kontra jardungo dute eta, ondoren, bandako kidea izan zen Julen 'Plaentxik' eta bere laguntzaileek prestatutako afaria izango dute, Zazpi Gazte elkartean.

Serenata, zapatu gauerdian

Zapatu gauerdian, berriz, Untzagatik abiatuta Santa Zezilia serenata eskainiko dute musikariek: 'Amanecer', 'México', 'Las delicias' edo 'La Paloma' bezalako doinu mitikoekin alaituko dituzte herriko erdialdeko kaleak eta, betiko moduan, ospakizuna-



Eibartarrek gogoz egingo dute aurten ere Santa Zezilia Serenataren ibilbidea.

Musikaz betetako asteburua, Santa Zezilia gogoan

rekin bat egin eta musikarekin gozatu nahi duten herritar ugari batuko zaizkie ibilbidean.

Baina gaueko serenata larregi luzatzea ez da komeni, biharamonerako plana badago eta: domekan, Santa Zezilia egunean, 12.30etan hasiko da Cielito Musika Bandaren kontzertua Coliseoan. Santa Zeziliakoa kontzertu berezia izan ohi da urtero, baina aurten are bere-

ziagoa izango dela aurreratu digute bandakoek: *"Besteak beste, 12 urtez gure zuzendaria izan den Jorge Molinari omenaldi txikia egingo diogu. Horrekin batera, bandan 25 urte daramatzen Emilio Bastidak ere omenalditxo jasoko du. Gainera, azken urteetan egin izan dugun bezala, aurten ere musikari berri batek lehenengoz bandarekin jotzeko aukera izango du Santa Zezilia kontzertuan, hain zuzen ere aurretantzean Cieliton tronpa joko duen Galder Onecak".*

Molina zuzendari-ohiak orain arte betetako tokian, berriz, zuzendari berria izango da: Carlos Sánchez Barba. Bere gidaritzapean bandak eskainiko dituen piezak, berriz, honakoak dira: 'Santader', 'Highlights from Hook', 'Marcha triunfal de la ópera Aida', 'El Caserio',

'Siempre Bolero' eta 'Marchas Húngaras nº5 eta nº6'. Musikaz betetako asteburu honetan atsedean gutxi izango dute Cielito bandakoek.

EUSKARAREN

480.000 EURO AHOTSAK.COM PROIEKTUARENTZAT. Gipuzkoako egitasmoa aurrera ateratzeko, Ahotsak.com proiektuak 480.000 euro jasoko ditu, Foru Aldundiak eta Kutxak jarriko dituzten 240na mila euroei esker; horrela, 2012rako lurraldeko udalerrri guztietako euskararen lekukotasuna jaso eta, gutxienez, bakoitzean elkarriketa bat egingo dute. Hitzarmena mesedegarria da Badihardugu Euskara Elkartearentzat, horrek elkarriketa eta bilketa prozesua arinduko baitu, guztiak beharrezkoa ikusita adina dela-eta gero eta gutxiago direla 36ko gerra aurreko euskarari buruz jaso daitezkeen testigantzak. Ahotsak.com orain dela hamar urte jaio zen eta, hasieran, Debako eskualdeetako ahozko ondarea eta herri hizkera biltzeko batez ere; esparru geografikoa zabaltzen joan ziren, lehenbizi Gipuzkoara eta gero Euskal Herri guztira. Orain arte, 93 herritako 1.949 hizlari elkarriketatuta dituzte eta ia 15.000 pasarte bildu.

TXOKOA


Juan San Martinen argazkiak sarean

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK JUAN SAN MARTINEN ARGAZKI BILDUMA MARDULA DIGITALIZATU eta sarean zintzilikatu du, www.guregipuzkoa.net helbidean. 6.200 argazki dira guztira eta, besteak beste, Klub Deportiboan egindako behararen ingurukoak daude bilduman. Horrez gain, Eibarko aintzina-ko irudi ugari jaso dituzte. GureGipuzkoa.net Foru Aldundiko Euskara eta Kultura sailaren zerbitzua da eta San Martinen argazki bilduma ez ezik, Indalezio Ojanguren eta Sigfrido Koch argazkilarien lanak ere batzen ditu, nahi duenak eskuragarri izan ditzan.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.





Zorionak, NAGORE Arakistain Mendizabal, astelehena hiru urte bete zenduazelako. Famelixa osuaren partez.




Zorionak, MIREN. Eguaztenian 22 urte izango dozuz honezkerok! Muxuak Silvia ahiztia, kuñatua, aitta, ama eta aitxitxaren partez.



Zorionak, MADDI eta IRATI, zazpi eta bost urte bete dozuez-eta. Muxu potolo-potoluak gu danon partez!!



Zorionak, INTZA, astelehena hiru urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.




Zorionak, LUAR, atzo urtebete egin zendualako. Muxu haundi bat aitxitxa eta amamen partez.

zinea Coliseoan

20an, 22.00etan; 21ean, 17.00, 19.30 eta 22.30etan
22an, 17.00 eta 20.00etan; 23an, 20.30etan

"Luna nueva"

Zuzendaria: Chris Weitz
Aktoreak: Kristen Stewart, Robert Pattinson, Taylor Lautner, Chaske Spencer...



Bella arriskuan izango dela eta, Edward-ek duten harremana albo batera lagatzea erabaki du. Bella eta Jacob-en arteko harremana estutzen joango da. Denborarekin, gero eta sekretu gehiago ezagutuko ditu Bellak, guztiak arriskutsuak...

"Yo también"


Zuzendaria: Alvaro Pastor
Aktoreak: Lola Dueñas, Pablo Pineda, Isabel García Lorca, Pedro Álvarez...



Danielek 34 urte ditu, Sevillakoa da eta, Down sindromea duten europarren artean, goi mailako ikasketak amaitzen lehenengoa da. Lanean hasi eta Laura ezagutuko du. Lagunak egingo dira eta arazoak hasiko dira Daniel maitemintzean...

"2012"


Zuzendaria: R. Emmerich
Aktoreak: John Cusack, Chiwetel Ejiofor, Amanda Peet, Oliver Platt...



Mendeak pasatu dira Maien zibilizazioak idatzita laga zuenetik. Lurraren desagerpena ekarriko duen eguna zein izango den esan zuten. Astrologo eta geologoak ados agertu ziren Maiek esandakoarekin eta 2012. urtea ailegatu da...

"Cuento de Navidad"

Zuzendaria: R. Zemeckis
Aktoreak: Jim Carrey, Colin Firth, Gary Oldman, Bob Hoskins...



Dickens-en ipuin ezagunaren bertsio berria egin dute. Scrooge gaiztoa da, langileak eta familiakoak ez ditu behar bezala tratatzen, baina eguberri egunean ezusteko bisita izango du eta bere bizitzeko modua aldatu beharko duela ikusiko du...

DENBORAPASAK

SUDOKUA

		6	2	1				
	4				9	6		
	3		6			1		5
3				4				
4		5			7	2		
	7		9		2			
			7	9	6	8		
6			4		8			7
	8		1	5				6

6	7	3	5	4	2	9	8	1
8	5	2	9	6	1	3	4	7
1	4	9	3	7	8	2	6	5
3	8	6	1	5	4	7	9	2
5	2	7	6	8	3	8	1	4
9	1	4	8	2	7	6	5	3
4	3	5	2	6	6	1	7	8
2	9	8	7	1	5	4	3	6
7	6	1	4	3	9	5	2	8

AURREKOAREN EMAITZA

JAIOTAKOAK

- Kenan Mujanovic Vivas. 2009-XI-6.
- Martín Cortina Mendoza. 2009-XI-6.
- Gorka Taboada Cobo. 2009-XI-10.
- Jon Kapelastegi García. 2009-XI-11.
- Ayoub Benslaiman. 2009-XI-11.
- Danel Molpeceres Torres. 2009-XI-12.

HILDAKOAK

- Luis Airas Fernández. 97 urte. 2009-XI-14.
- Jon Kortaberria Bernedo. 74 urte. 2009-XI-15.
- Jesus Garai Fernández. 82 urte. 2009-XI-17.

horoskopoa

ARIES

Nekatuta ibiliko zara, ez duzu gauza askorik egingo, baina indarra faltako zaizu egunerokoan. Ondo lo egiten saia zaitez.

TAURUS

Faltan botako duzu pertsona berezi bat. Azken aldian gutxitan izan zara berarekin eta egon zarenean ez duzu ondoegi aprobetxatu.

GEMINI

Zuk ikusi zer duzun nahiago. Zorteko zaude, izan ere, aukeratzeko beta daukazu. Besteek eskertuko lukete zure lekuan egotea.

CANCER

Lotsarazi egingo dizu familiako batek egindakoak, baina badakizu nolakoak den eta ez da aldatuko. Ez egin jaramorik besteek esaten dutenari.

LEO

Zer iruditzen Daikiri bat edaten hondartzan botata egotea? Ametsa da zuretzat? Egin maleta eta badakizu, bete ametsa. Ez daukazu aitzakiarik.

VIRGO

Ez duzu ezagutzen, baina inpresio handia egingo dizu pertsona horrek kalean egingo dizun keinuak. Zer esan nahi du horrek? Jakingo duzu.

LIBRA

Kasuak eta kasuak daude, ezberdintzen saiatu behar zara. Burugogorregia zara askotan eta ez dituzu begiak zabaltzen.

SCORPIUS

Pasioa. Suaren pareko pasio momentuak biziko dituzu asteburuan. Aspaldian gordetako amodio sutsu hori berpiztuko da zugar.

SAGITTARIUS

Ez zenuen esandakoa ondo ulertu eta ederra egin duzu. Batari eta besteari komentatu diozu eta ez da egiazko kontua. Errua onartuko al duzu?

CAPRICORNIUS

Datorren asteko egunen batean goizegi esnatuko zara, izan ere, gauza bat izango duzu buruari bueltaka. Ahalegindu kafe asko ez hartzen.

AQUARIUS

Askotan pentsatu duzu ikasitakoak ez dizula ezertarako balio izan eguneroko bizitzan. Ba aste honetan konturatuko zara hori ez dela horrela.

PISCIS

Defentsa onena eraso on bat dela diote, ez al da hala? Bada pentsa ondo nola erasotu, partidua galtzen ari zara-eta.

Barixakua 20**MUNDUKO PAISIAK**

18.00.- 'Maroko, kontrastez beteriko herrialdea' Marokori buruzko hitzaldia, Hajar Samadiren eskutik.

18.30.- Arabiar kaligrafia, henna eta te zeremonia tailerrak, Safa emakume arabiarren elkartearen eskutik. Umeen Liburutegian.

Zapatua 21**GAZTE LOKALEN LEHIAKETA**

12.00.- Gazte lokalen arteko lehiaketako finala.

13.00.- Bazkari-lehiaketa.

14.30.- Bazkaria. Sari banaketa ekitaldia.

16.30.- Jokoak.

17.30.- Kontzertua. Armeria Eskolan.

BAZKARIA

14.00.- Debabarrenako Gutxitu Fisikoen Elkarteko bazkaria. La Jara jatetxean (Sautsin).

KONTZERTUA

20.00.- 'Voz del Pueblo' (Guarnizo, Kantabria) abesbatza polifonikoaren kontzertua. San Pio X.a elizan.

ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA

20.00.- Javier Agirresarobe Saria. Sari banaketa ekitaldia. Portalean.

SANTA ZEZILIA SERENATA

00.00.- Santa Zezilia serenata, Cielito Musika Bandarekin. Untzagatik hasita.

Domeka 22**BAKAILAO LEHIAKETA**

11.00.- Eskolarteko VI. Bakailao Lehiaketa. Untzagan.

KALEJIRA

11.00.- Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

KONTZERTUA

12.30.- 'Santa Zezilia kontzertua, Cielito Musika Bandarekin. Coliseoan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'Ice Age 3'. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

Astlehena 23**BATZARRA**

19.30.- Klub Deportiboko Mendi Taldearen asanblada. Klub Deportiboan.

Martitena 24**IKASTEN**

10.00.- 'Viajes a larga distancia: una visión diferente', Gloria Latasaren hitzaldia (Kutxarekin elkarlanean). EPAn (Isasi, 39).

Eguaztena 25**KONTZENTRAZIOA**

13.00.- Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Kontzentrazioa Untzagan.

Eguena 26**IKASTEN**

10.00.- 'Historia del arte Barroco' (2. zatia), Satur Peñarekin. EPAn (Isasi, 39).

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- 'Capitán Abu Raed' (Zuz: Amin Matalqa). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

PINTXO LEHIAKETA

Egun osoan.- Tabernari arteko VI. Pintxo Txapelketa. San Andres saria.

BIODANTZA

19.00.- Biodantza klase irekia (sarrera 10 euro). Arrateko Andra Mari (Urki) ikastetxeko gimnasioan.

BIDEO EMANALDIA

19.00.- 'The weather underground' film-dokumentalaren emanaldia. Tallarra gaztetxean.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

VI. Pintxo lehiaketako parte-hartzaileak:

AGUIÑASPI
AMBIGÚ
ANARDI
ATERPE
BIG BEN
BIRJIÑAPE
BOSSA
BOST
CHALCHA
EGO GAIN
KOSKOR
KULTU
MONTEKASINO
SU BEROA
TAS TAS
TERRAZA
TRINKETE
TUPI AZPI
TXOKO



Ego Gainek irabazi zuen iazko edizioa.





erakusketak

- Azaroaren 29ra arte

ENRIQUETA JUARISTI eta **BEGOÑA EIZAGAETXEBERRIA**ren pintura erakusketa. Topalekuan.

EXFIBAR 2009 XL. seilu erakusketa. *Portalean (ordutegi berezia).*

- Azaroaren 30era arte

ALEX MARTINen argazki erakusketa (3-D). Untzaga jubilatutxean.

JOSE LUIS IRIGOIENen Marokoko argazkiak. Liburutegian.

- Abenduaren 13ra arte

GEMMA MONREAL (pintura) eta **JAIRO BERBEL** (argazkiak) erakusketa. *Elgoibarko Kultur Etxean.*



Gemma Monreal.

ikastaroak

- Reiki (Hastapena).

Noiz: Azaroaren 28an eta 29an, Txaltxa-Zelaiko Reiki zentruan. Izen-ematea: 665743217 (Martin).

- Autodefentsa ikastaroa (emakumeentzat).

Noiz: Abenduaren 19an, Ipuruia kiroldegian. Izen-ematea: Azaroaren 27ra arte, Pegoran.

lehiaketak

- Mendiko argazki lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Azaroaren 26ra arte, Morkaiko Elgoibarko Mendizale Elkartearen egoitzan edo morkaiko@morkaiko.net helbidean. Informazioa: www.morkaiko.net

- 18. Amodiozko Gutunen lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 7ra arte, Jardun Euskara Elkartean (Errotalde jauregia z/g. 20.570 Bergara). Informazioa: www.jardun.net edo 943763661 telefono zenbakian.

- Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen Sariak.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilak 22ra arte, Hezkuntza Esparruan. Informazioa: eibarres@terra.es

diru-laguntzak

UMEAK ESKOLARA 2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994-I-1etik 2003-XII-31ra bitartean jaiotako umeak. Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984-I-1etik 1993-XII-31ra bitartean jaiotakoak). Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

famaziak

20, barixakua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

21, zapatua

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

22, domeka

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

23, astelehena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

24, martitzena

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

25, eguaztena

EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)

26, eguena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Aranburu** (*Gipuzkoa etor., 46*)

27, barixakua

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Alberdi** (*Zubiaurre, 9*)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.30, 08.50, 10.30, 13.50, 14.50 eta 18.50. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.50, 18.50 eta 20.50. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.50, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutegia: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.50. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.50 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.50. **ERMUA-MENDARO.** Asteleheneetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etik 22.20etara orduerdiko). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50etik 21.50era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etik 21.55etara orduerdiko. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55etik 21.55era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.54. **EIBAR-DURANGO.** Egutegia: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztuta. 26.000.000 pta. Tel. 659-687736.
- Txaltxa-Zelai ondoan pisua salgai. 68 m². Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 675-700864.
- Zaldibarren pisua salgai. 90 m². Sartzeko moduan. 24.000.000 pezeta. Tel. 946-820458 edo etxeasal@live.com

1.2. Errentan

- Romualdo Galdos kalearen inguruan pisua alokagai. Jantzita. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 616-490196.
- Eibarren edo inguruan logela edo buhardila hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-784526.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokagai. Tel. 646-662911. Felicia.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

- Otaola Hiribidean 60 m²ko lokala alokagai (emergentzia-argiak, sutearen aurkako ateak, extintoreak...). Tel. 635-734261.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-530517 edo 645-366850.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 636-302237.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 686-420642.
- Emakumea eskaintzen da orduka etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Tel. 654-837227.
- Emakumea eskaintzen da orduka etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Geriatria kurtoa eginda. Tel. 669-311385 edo 646-235195.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 686-435056.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 656-493864.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. 675-421933.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean edo asteburuetan kamarera moduan. Tel. 671-972733.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-154754.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-786976.
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 627-163603. Vania.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean edo gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 672-076852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-329979. Lourdes.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da autonomo moduan edo kontratuarekin orduka lan egiteko: garbiketak edo banaketak egiteko autoarekin. Tel. 605-800582. Alex.
- Neska eskaintzen da 15.00etatik aurrera edozein lanetarako. Tel. 691-532893. Lizett.
- Neska eskaintzen arratsaldean umeak zaindu edo kamarera lanetarako. Tel. 697-939085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketa lanetarako. Tel. 625-048037 edo 680-223378.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-273295.
- Neska eskaintzen da arratsaldean edo asteburuetan edozein lanetarako. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da astero bi eguntan orduka lan egiteko: nagusiak zaindu edo garbiketa lanak. Tel. 679-878676.
- Neska euskalduna eskaintzen da edozein garbiketa lanetarako. Tel. 687-114707.
- Erizain tituluduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 649-008036.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, garbitzaile edo zaintzaile moduan. Tel. 610-545505.
- Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan edo etxeko lanetarako. Tel. 943-108403.
- Mutila eskaintzen da autonomo moduan eraikuntzan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 605-800582.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-329979.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 666-008974.
- Mutila eskaintzen da kamioi, C eta garraio publikorako karnetekin. Tel. 663-656621.

- Emakumea eskaintzen da 15.00etatik aurrera ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 691-532893.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 619-176223.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-482478.

4.2. Langile bila

- Eibarko jatetxe batek neska behar du, 13.00etatik 16.00etara. Tel. 943-207019.
- Eibarko tailer batek administrazioarako langilea behar du. Tel. 943-707050 edo mail@industriasmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-254060.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 685-738435
- ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Akademia batean irakasleak behar dira: bat Matematikak eta Fisika eta Kimika emateko eta beste bat Ingeleserako. Tel. 652-763264 edo centrobart@gmail.com
- Neska euskaldunak klase partikularrak emango lituzke. Tel. 617-844142.
- Akademia baterako irakaslea behar da (Inglese, Matematikak, Fisika eta Kimika, eskolarako laguntza). Tel. 652-763264 edo m.urteagamv@hotmail.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Hiru plazatako sofa salgai. Narruzkoa. Egoera onean. Tel. 676-377959. M^o Jesus.
- Play-Station 1 salgai. Berri-berria eta prezio onean. 11 joko opari. Tel. 943-120030.
- Autorako umeen silla bi salgai. Maxi-Cosi, 18 kilora arte. 60 euro bakoitza. Tel. 629-946467.
- Marmolezko mahai borobil txikia, edarientzako karrtoa eta eskritorioa (0'82x0'60) salgai. Tel. 647-840027.

6.3. Galdu/Aurkitu

- 5 hilabeteko txakurra galdu da. Otsoa eta ratoneroaren nahasketa. Beltza, hantetan marroia eta zuria eta lepo zuria. Tel. 690-302761 edo Laurel & Hardy pu-bean.

Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**





**AUTO
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



bukatu ditugu lanak

saltzeko
erosteko
alokatzeko
bilatzeko
oparitzeko
...

motzean esanda:

iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria

PEUGEOT 5008 MONOBOLUMEN BERRIA GUZTIONDAKO ZORIONA.



zatoz ezagutzera!

5008

Monobolumen berria

